

Goi-mailako joskintzakoteknikak
Ikastaro presentziala
Maila aurreratua

Fantasia

2026.06.29—07.03



CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

Modaren sektore profesionalean bikaintasuna eta ezagutza tekniko handiagoa sustatzeko xedez, museoak Balenciaga Etxeko fantasiako tailerretan erabilitako metodo zehatzetan sakontzeko ikastaroa aurkezten du.

Formakuntza praktiko eta intentsibo hau, fantasiako ibilbideko ikastaro-programazioaren parte da, eta proposatutako planaren zati gisa edo jarduera independente gisa egin daiteke. Interesdunak ibilbide bereko hastapen- edo/eta erdi-mailako ikastaroa lehenago egin izana balioesten bada ere, ez da nahitaezko baldintza plaza bat eskuratzeko.

Prestakuntzak bost egun iraungo du, eta barne hartuko ditu Balenciaga Etxeko josteko eta litzazeko tekniken erakustaldiak. Parte-hartzaileek horietan gaitasun praktikoak lor ditzaten, 1955 urteko eta museoaren bildumakoa den soineko baten osagai jakin batzuk egiteari ekingo zaio. Hain zuzen ere, uhalik gabeko gorputza egitea, bies erako begizta batez errematatua, arreta berezia jarritz barruko kortseletaren egiturari eta fantasiako tailerren berezko itxitura- eta erremate-teknika guztiei, hala nola frunzeak egitea, eta organtzak eta guatinak eta itxiturak jartzea. Ez da jantzi oso bat egingo; aitzitik, haren zati bat esperimentazio-esparru gisa erabiliko da.

FANTASIA	Iraupena	Modalitatea
1. Hastapen-maila	20 ordu	Presentziala
2. Erdi-maila	32 ordu	Online
3. Maila aurreratua	35 ordu	Presentziala

Ikastaroaren eta programaren aurkezpena

1. Fantasiaren atelierra

- Materialak, zetazko ehunak eta haien tratamendua
 - Fantasiako berezko eraikuntzak
 - Markatzeko eta ebakitzeko teknikak
 - Estanpatuen kokapena
 - Diseinua ehunera egokitzea
 - Indargarriak, betegarriak eta bestelako osagarri batzuk
-

2. Ariketa praktikoa: barneko kortselet bat egitea

- Gorputza prestatzea eta ebakitzea
 - Hagaxketarako josturak eta zintak jartzea
 - Tulezko kopak jartzea
 - Bular-betegarriak
 - Hagaxkak muntatzea
 - Kremlera eta gros grain erremateak eskotean
-

3. Ariketa praktikoa: uhalik gabeko eskotedun gorputz bat prestatzea eta moztea

- Ehuna prestatzea eta lisatzea
 - Piezak mihizatzea eta markatzea
 - Forruak moztea
 - Kankan-parpaila
-

4. Ariketa praktikoa: markak eta albaintzea

- Hari ahulak eta markak
 - Gorputza albaintzea
 - Gerria albaintzea eta lehen probarako aurkeztea
 - Zuzenketak eta fintzea
-

5. Ariketa praktikoa: gorputza fintzea eta egitea

- Zuzenketak fintzea
 - Jostura nagusiak albaintzea eta jostea
 - Lisatzeko teknikak
 - Kremlera jartzea organtzazko biesarekin
 - Dekorazio-banda eta begizta jartzea
 - Itxitura konbinatuak, kremlera, automatikoak eta kortxeteak
-

6. Ariketa praktikoa: zimurrak muntatzea

- Gorputzaren barrena markatzea
 - Ertzean organtza jartzea eta baxu-puntua egitea
 - Panela forratzea eta marjinen ehunen ertza jostea
 - Zimurtzeko albainu txikiak pasatzea
 - Panela zimurtzea eta eskuz jostea
 - Forrua gerrian jartzea
-

Javier Martín

Ávilan jaio zen, baina Madrilen bizi da. Madrilgo Unibertsitate Politeknikoan graduatu zen, 1991. urtean, modako goi-mailako diseinatzaile gisa. Prestakuntza-urteetan, Carmen eta Emilia Carriches ezagutu zituen. Bi emakume horiek hiriburuko EISA tailerreko langileak ziren, baita tailerreko buru Felisa Irigoyenen eskuineko eskuak ere. Bi emakume horiengandik Getariako moda-sortzailearen jostintza-teknika espezifikoak ikasi zituen eta, ondoren, bere diseinuak zehaztu dituzten bolumenen eraikuntzari buruzko ezagutza ere jaso zuen.

Hamar urtean Sybillaren taldeko kidea izan zen, 2005era arte. Urte horretan, goi-mailako jostintzara bideratutako bere marka propioa sortzea erabaki zuen, Nihil Obstat izeneko. Diseinatzaile gisa eta beste sortzaile batzuekin lankidetzan aritzen da; esaterako, Carmen March, Jesús del Pozo edo Joaquín Trías sortzaileekin. Azken hori Balenciaga etxeko maniki baten biloba da. Horiei guztiei aholkularitza teknikoak ematen die. 2012tik 2019ra, DELPOZO marka espainiarerako egiten du lan. Bertan, bildumaren zati baten bolumenak modelatu eta garatzen ditu, eta nazioartean sona duten luxuzko prêt-à-porter jantziak egiten ditu.

Irakaskuntzan ere aritzen da eta Espainiako Gobernuko Hezkuntza Ministerioko hezkuntza-proiektuetan parte hartu du. Horrez gain, Madrilgo Unibertsitate Politeknikoko Centro Superior de Diseño de Modan, Diseinuaren Europako Institutuan, eta Granadako Estación Diseño izeneko eskolan diseinuari eta modelatzeari buruzko ikastaroak eman ditu, besteak beste. 2015. urteaz geroztik Cristóbal Balenciaga Museoaren hezkuntza programan parte hartzen du, Balenciaga Etxeko tailerretan erabilitako jostintza teknikak bildu eta helaraziz.



Datak	2026ko ekainaren 29tik uztailearen 3ra.
Orduetgia	10:00-14:00/15:00-18:00 Guztira, 35 orduko jarduera.
Hizkuntza	Gaztelania.
Parte-hartzaileak	<p>Modaren Diseinua, Patroigintza eta/edo Jantzigintzako tituludunak, modaren arloko profesionalak, eta fantasiako goi-mailako jostuntzaren teknikak sakonago ezagutu nahi dituzten guztiak. Bereziki egokia da aurretik fantasiako goi-mailako jostuntza-tekniken hastapen-ikastaroa edo/eta ertaina, museoak antolatutakoa, egin dutenentzat.</p> <p>Gehienez ere, 16 parte-hartzaile izango dira. Eskatutako dokumentazioaren arabera, parte-hartzaileen aukeraketa egingo da, eta apirilaren 30etik aurrera adieraziko da zeintzuk diren esleitutako plazak.</p>
Baldintzak	Parte-hartzaileek jostuntza-teknikei buruzko ezagutzak izan eta egiaztatu beharko dituzte, eta jantzi bat moztu, josi eta prestatzeko gai izan beharko dira. Nahitaezko baldintza ez bada ere, aldeztatik prestakuntza-ibilbide bereko ikastaro bat egin izana baloratuko da.
Izen-ematea	Izen-emateak apirilaren 15ra arte jasoko dira (egun hori barne, 14:00ak arte). Interesdunek online dagoen inskripzio-formularioa bete beharko dute, eta modaren esparruan duen trebakuntza eta esperientziaren berri eman behar dute curriculum vitaean. Motibazio-gutuna ere aurkeztu behar da. Bertan, interesdunak jarduerarekin duen interesaren berri eman behar du, bai eta jardueraren edukiarekin duen lotura ere. Osatu gabeko edo epez kanpo jasotako eskariak ez dira onartuko.

Prezioa

475€. Prezio horren barnean daude ariketak egiteko materialak, 50€ko balioa dutenak. Museoak kit bat izango du parte-hartzaile bakoitzarentzat, behar diren gauzekin: pike-motako edo antzeko mota bateko kotoia, kotoizko estera, tula eta retorra, baita proposatutako ariketak egiteko beharrezkoak diren osagarriak ere. Bestalde, parte-hartzaileek joskintzako oinarrizko tresnak (artaziak, orratzak, jostorratzak, hariak, marka-harria, etab.) ekarri beharko dituzte.

Cristobal Balenciaga fundazioak jaso beharreko matrikularen prezioa lehen aipatutakoa da, bankuko gastu guztiak parte-hartzaileak bere gain onartuko ditu.

«Museoko lagunei» dagokien deskontua matrikula egiteko unean gutxienez bi urteko antzintasuna duten lagunei soilik dagokie.

Plaza mugatuak/Aldez aurretik izena eman behar da

Parte-hartzaileen gutxienerako kopururik lortzen ez bada, jarduera bertan behera gelditzen dela jakinaraziko zaie interesdun guztiei, eta matrikularen zenbatekoa itzuliko da, hala dagokion kasuetan.

Amaitzean, jardueran parte hartu izanaren egiaztagiria emango da.

Harremanetarako

T +34 943 004 777
info@fbalenciaga.com

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria
T +34 943 008 840
info@crislobalbalenciagamuseoa.com
www.crislobalbalenciagamuseoa.com

B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

